

# **BOSEK LAU KONTZERTU DIDAKTIKO ESKAINIKO DITU BIZKAIAN**

---

*Orkestra Lurralde Historiko osora hurbilarazteko filosofiar eutsiz, BOSeK, urriaren amaiera aldera, bira bat egingo du Bizkaiko lau udalerritatik, "Moldava - Musikak ibai handi baten ibilbidetik eramango gaitu" kontzertu didaktikoa interpretatuz*

**Bilbon, 2012ko urriaren 23an**

Bilbao Orkestra Sinfonikoa, 2012-2013 denboraldiaren hasieran, jarduera berria abiaraziko du, gazteenei zuzenduriko egitarauaren barruan: Kontzertu Didaktikoak Bizkaitik

Gure Orkestraren helburu nagusienetako bat da bere jarduera Bizkaiko bazter guztietara hurbilaraztea. Horretarako, gure Bilboko egoitzan egin ohi ditugun jarduerak Lurralde osotik egiten ditugunekin uztartzen ditugu. 2006az geroztik, Orkestra Bizkai osoan ikusi eta entzun ahal izan da, Ganbera Bizkaitik izeneko programari esker. Izan ere, horren bitartez, eta gure Lurraldeko udalerriekin lankidetzan, formatu txikiko errezitaldiak eskaintzen ditugu, gure orkestrako musikariek interpretatuta. Era berean, ohikoa da urtean zehar BOS *orkestra sinfonikoaren formatuan* aritzea Bizkaiko zenbait udalerritan. Orain abiarazten dugun jarduera didaktiko honen bitartez, gure Orkestraren kontzertuen eskaintza handitzen dugu, jarduera didaktikoa sartuz.

Urriaren 24, 29, 30 eta 31n Bizkaitik egingo ditugun kontzertuak urrats bat gehiago dira, BOS herritar guztiengana hurbilarazteko konpromisoaren barruan. Urrats hori, gainera, gure jarduera gogokoenetako batean emango dugu, hain zuzen ere, gazteenei zuzenduriko jarduera batean.

4 kontzertu hauetan, lehen hezkuntzako ikasle diren Bizkaiko 2.000 gazte BOSen kontzertu batera joan ahal izango dira. Kontzertu horretan, programa didaktikoa interpretatuko dugu, hain zuzen ere, egin ditugun guztietatik arrakastarik eta harrerarik onena izan duena.

Osagarri gisa, jarduera honetan parte hartuko duten ikastetxeei aldeztu aurretik bidali zaien gida didaktikoa prestatu da, BOSen kontzertu hauetara etorriko diren ikasleekin aldeztu aurretiko prestakuntza ahalbidetzeko.

### **Moldava - Musikak ibai handi baten ibilbidetik eramango gaitu**

Smetana, Dvorak eta Palaciosen musikak.

Hermann Grosse-Jäger eta Fernando Palaciosen testuak

*Zer uste duzue dela soinu hau? Ibaiaren jaiotza da: ezerezetik irteten den ur freskoa etengabe jariatzen duten iturri eta iturburuak. Konturatu zer-nolako soinua duen iturburu honek. Nork jotzen du? Instrumentu bat da, edo bi dira? Gora eta behera egiten duen melodia da, eta txirula bik partekatzen dute. Eta, orain, zer da biolinek jotzen duten hau? Aski ezagunak ditugun "pizzicatoak" dira, eta ziprztinak botatzen dituzten ibaiko uraren tantak adierazten dituzte.*

*Interesarekin entzunez gero, bereizi ahal izango dugu zer pasatzen den ibaiaren iturburuaren beste momentu batean, edota, bestela esanda: zer gertatzen da txirulen esku-hartzearen ostean? Klarineteak sartu dira, beste haize-instrumentu batzuk. Antzeko zerbait interpretatzen dute, baina ezberdina: bereizten jakin behar dugu. Entzun ditzagun klarineteak bakarrik.*

*Beherantz doan melodia da, klarinete bien artean partekatzen dena. Baina, kontuz! korrante gehiago dago, ur gehiago. Biolak eta biolontxeloak dira, ura bor-bor jariatzea lortzen dutenak. Hainbeste ur jariatzen da, ezen, pixkanaka-pixkanaka, Moldava ibaia eratzen baitoa. Orain, denok entzuten dugu ibaiaren iturburu hau eta bere korrantea, hasieratik.*

### **Bizkaitik egingo diren Kontzertu Didaktikoen egitaraua**

URRIA Az 24	<p><b>Moldava</b> <b>Musikak ibai handi baten ibilbidetik eramango gaitu</b> B. Smetana, A. Dvorák eta F. Palaciosen musika Hermann Grosse-Jäger eta Fernando Palaciosen testuak</p> <p><b>Bilbao Orkestra Sinfonikoa</b> <b>Javier Irigoien, narrazioa</b></p> <p><b>Daniel Sánchez Velasco, zuzendaria</b></p>	DIDAKTIKOAK BIZKAIAN MUSKIZ Meatzari Aretoa 11:30ean. Euskaraz
URRIA Ai 29	<p><b>Moldava</b> <b>Musikak ibai handi baten ibilbidetik eramango gaitu</b> B. Smetana, A. Dvorák eta F. Palaciosen musika Hermann Grosse-Jäger eta Fernando Palaciosen testuak</p> <p><b>Bilbao Orkestra Sinfonikoa</b> <b>Javier Irigoien, narrazioa</b></p> <p><b>Daniel Sánchez Velasco, zuzendaria</b></p>	DIDAKTIKOAK BIZKAIAN SANTURTZI Serantes Kultur Aretoa 11:30ean. Euskaraz
URRIA As 30	<p><b>Moldava</b> <b>Musikak ibai handi baten ibilbidetik eramango gaitu</b> B. Smetana, A. Dvorák eta F. Palaciosen musika Hermann Grosse-Jäger eta Fernando Palaciosen testuak</p> <p><b>Bilbao Orkestra Sinfonikoa</b> <b>Javier Irigoien, narrazioa</b></p> <p><b>Daniel Sánchez Velasco, zuzendaria</b></p>	DIDAKTIKOAK BIZKAIAN GERNIKA Lizeo Antzokia 11:30ean. Euskaraz
URRIA Az 31	<p><b>Moldava</b> <b>Musikak ibai handi baten ibilbidetik eramango gaitu</b> B. Smetana, A. Dvorák eta F. Palaciosen musika Hermann Grosse-Jäger eta Fernando Palaciosen testuak</p> <p><b>Bilbao Orkestra Sinfonikoa</b> <b>Javier Irigoien, narrazioa</b></p> <p><b>Daniel Sánchez Velasco, zuzendaria</b></p>	DIDAKTIKOAK BIZKAIAN ZALLA Euskaraz